

ELKARREKIN BIZITZEN IKASI

JARDUERAK



Elkarrekin Bizitzen Ikasi Programak formakuntzatik haragoko ikasketarako esparru didaktikoak sortzeko helburua dauka.

Topaketarako eta elkarbizitzarako esparruak sortzea du xede; horrela, hiritargo kritiko eta eraikitzailea sustatuko duelakoan, hiritarrek jarrera aktiboa har dezaten hiriko aferetan.

Elkartrukaketarako, komunikaziorako, eta elkarrengandik ikasteko esparru izatea du helburu, gaurko egunari gailenduko zaion elkarbizitza eredia eraikitzeko erronkari helduko diona.

Urriak 15, larunbata

INSTALAZIO ARTISTIKO PARTE HARTZAILEA. KULTURARTEKO-TASUNA; NAHASKETA; ELKARTRUKAKETAK; JAKINDURIAK.

Irantzu Lekue

Hiri honetako pertsonak daude gonbidatuta instalazio artistiko honetan parte hartzera. Parte hartzaileek borobil bat marraztuko dute koloretako azetatoetan. Zirkuluari barrutik begiratutakoan, koloreak graduatuta ikusiko dira. Tonu beroetatik tonu hotzetara doazen koloreak antzemango dira. Zirkuluari edozein albotatik begiratuta, berri, somatuko da koloreak bata bestearen gainean jartzen direla, eta tonalitate berriak sortzen direla.

Parte hartzaileek borobilean marraztutako irudiek gure hirian bizi diren kultura ezberdinetako ikur esanguratsuak irudikatuko dituzte; eta era sortzailean nahastuko dira; bizitza modu berriak, kultura mestizoak, eta era askotako elkarbizitzak sortzeko.

Lekua: Antso Jakitunaren kalean burutuko litzateke, Bastiturri kalearen bukaerako estalpean.

Ordutegia: 12:00etatik 14:00etara
Publikoari irekia.



Urriak 29, larunbata

ANTZERKI IKUSKIZUN INTERAKTIBOA, FLUX

Zaguango Teatro

<http://www.zanguangoteatro.com/>

Kale baten erdian, 20 metroko luzerako alfonbra gorri bat ezohiko eszenatoki bilakatzen da, eta bertan gertatzen dena nabarmendu egiten da. Bat-bateko egoerak planteatzen dira, ezusteko oinezkoenak, portaeraren eta giza harremanen gaineko gogoetara eramaten gaituzten irudiak; eta irudi horiek jolasaren, umorearen eta absurduaren ikuspuntutik jorratzen dira.

Taldeak halabeharrez osatzen dira; parke baten erdian ezusteko bilerak inprobisatzen dira; munduan zehar, uneoro, matxinada isilak gertatzen dira, inor konturatzen ez bada ere, eta noizean behin matxinada horiek gizateriaren etorkizunarekiko baikor izatea ahalbidetzen digute.

Lekua: Urrezko Zeldoen plaza (posta plaza)

Ordutegia: 13:00etatik 14:00etara
Publikoari irekia.

Azaroak 11, ostirala

JANEREN IBILALDIAK EKIMENAREN HITZALDI-AURKEZPENA HIRI SORTZAILEA HELBURU

Isabela Velásquez

Janeren Ibilaldiak (ingelesez, Jane's walk) izeneko ekimena, funtsean, gure hirietan ibiltzean datza, hiriei begiratzean, eskaintzen diguten errealitatetik ikasiz, eta aztertuz gure inguruan zer funtzionatzen duen ongi eta zer gaizki. Jane Jacobsek sutuki defendatzen zuen honako ideia hau: auzoen funtzionamendua, hango arazoak eta arazo horiek konpontzeko bideak hobekien ezagutzen dituztenak bertan bizi diren auzotarrak dira.

Janeren Ibilaldiak milaka hiritan egin dituzte munduan zehar, baita gure inguru hurbilenean ere, hala nola, Bilbon (Bilbo Zaharra auzoa) edo Donostian (Amara auzoa, 2016ko hiriburu kulturalaren testuinguruan).

Lekua: Centro Cultural Montehermoso Kulturunea. Betolaza aretoa.

Ordua: 19:00 h
Publikoari irekia.



Azaroak 12, larunbata

ANIZTASUNAREN ETA ELKARBIZITZAREN IBILBIDEAK

Janeren ibilaldiak. Ibilaldia Zabalganen zehar

Isabela Velazquez eta Juan Ibarrondo.

<http://www.gea21.com/equipo/iv>

<http://juanibarrondo.blogspot.com.es/>

Zabalgana auzo sortu berria da eta Janeren Ibilaldien lehenengo edizio honetan gure ikerketaren jomuga izango da. Auzoak gabeziak baditu ere, aukerak ere eskaintzaen ditu aniztasunean elkarbizitzeko. Datorren urtean, udaberriaren zehar, beste auzo batzuetan ere egingo ditugu ibilaldiak, besteak beste, Zaramagan, Abetxukon, edota Alde Zaharrean; betiere, Jane Bradforden metodologia lagun, eta Isabela Velazquez adituaren begiradapean.

Lekua: Zabalgana auzoa.

Orduetgia: 12:00etatik 14:00etara

Parte hartzaile kopurua: gehienez 50 lagun.

Aldez aurretiko erreserba behar da: eman izena hemen

Azaroak 22 asteartea

ZINE-FOROA ZINEXIT ELKARBIZITZARANZKO 7. ZINE- ERAKUSKETAREN LUZAPENA

Film proiektzioa: MARZIA, MY FRIEND

Kirsi Mattila, Finlandia, 2015, 80 minutu

Marziaren istorioa emakume afganiarren borroka zabalagoaren sinboloa bihurtzen da: beren bizitzetara buruzko erabaki propioak hartzeko eskubidea. Zinemagileak, Marziaren adiskidea baita, haren bizitzaren jarraipena egiten du 2011ko udaberrietik 2014ko bukaerara arte, hau da, nazioarteko tropek ustez herrialdea utzi arte.

Sariak: GIZA ESKUBIDEEN ALORREKO FILM ONENA, Galway Film Fleadh, 2015 (Irlanda), AMNESTY INTERNATIONALekiko lankidetzan | DOKUMENTAL ONENA, Montreal World Film Festival 2015, Kanada | DOKUMENTAL ONENA, Zinema Dokumentaleko Jaialdia Afganiarra, Stockholm 2015, Suedia | DOKUMENTAL ONENA, Queens World FF New York 2016, AEB | GAZTE BEGIRADA SARIA, Bruselako Zinema Dokumentaleko Millennium Jaialdia 2016 (Belgika).

Lekua: Villa Suso jauregia

Orduetgia: 19:00

Publikoari irekia



Abenduak 1, osteguna

HITZALDI-EZTABAIDA. DIBERTSITATE FUNTZIONALA, TEORIATIK PRAKTIKARA

Abenduaren 3an NBEk Pertsona Desgaituen Nazioarteko eguna ospatzen du. Hori dela eta, aprobetxatuko dugu data hori, dibertsitate funtzionala duten pertsonekin eta haien elkarrekin batera, pertsona desgaituen inguruko nazioarteko estandarrak betetzen ote diren aztertzeko.

Hitzaldia: Xabier Urmeneta

Eztabaida: Dibertsitate funtzionaldun pertsonen zenbait elkartetako ordezkariak hartuko dute parte.

Moderatzaile lanetan Gasteizko kazetari ezagun bat arituko da.

Lekua: Villa Suso jauregia

Orduetgia: 19:00etatik 21:00etara

Publikoari irekia

Abenduak 19, astelehena
GLENCREEKO PROZESUA BARRUTIK
Carlos Martín Beristain

2012an 25 biktimak osatutako taldea Irlandako Glencree hirian bildu zen modu diskretoan. Tartean ETaren, poliziaren jazarpenaren, Batallon Vasco Español erakundearen, eta GALen biktimak ziren. Topaketa hartan elkarren esperientziak partekatu zituzten, nork bere biktima ikuspuntutik, eta gutxieneko testu bat adostu zuten: Glencreeko deklarazioa. Carlos Martín Beristain Euskadirentzat garrantzi handia izan zuen prozesu hartako bitartekarietako bat izan zen.

Lekua: Centro Cultural Montehermoso Kulturunea. Ortuño aretoa.

Ordutegia: 19:00 h

Publikoari irekia

